

7-FUNTZESKO BALIABIDEAK

Giza baliabideei dagokionez, gure enpresak lau langile plantilla batekin lan egingo du. Horietatik bi ingeniarioak izango dira, diseinuaz arduratuko direnak eta mekanikoei dagokionez, bi izango dira, gure fabrika lan egingo dutenak. Langileei dagokienez, soldatetan bideratutako urteko gastua 144.000€-koa izago da. Bestalde, enpresaren baliabide fisikoak lantokia, makinak eta produktuak (plakak) dira. Finantza baliabideak, ordea, bi multzotan banatu ditzakegu. Alde batetik, diru sarrerak plaken salmentaren ondorioz lortuko ditugu. Bestalde, gastuak langileen soldatak, fabrikaren alokairua, plaken garapenerako inbertsioa eta plaken instalazioa suposatzen dituen kosteak osatuko dute. Hiru bazkideen hartean lortu behar dugun dirua enpresa sortzeko 50.000€-ko inbertsioa egin beharko dugu gure enpresa hazteko, hau da, enpresaren hiru bazkideok 5.000 euroko inbertsioa egin beharko dugu lehenengo urtean. Horrekin batera, 35.000 euroko mailegu bat eskatu beharko dugu lehenengo urteko gastuei aurre egin ahal izateko. 35.000€ mailegua 5 urtetan itzuliko dugu 668,54€ hilabeteroko kuota batekin.